

**Batxilergoko Sari Bereziak / Premios Extraordinarios de Bachillerato****BALORAZIO-IRIZPIDEAK****BALORAZIO-IRIZPIDE OROKORRAK**

Baloratuko dira erantzun zuzenak, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren egokitasuna eta zuzentasun linguistikoa.

BALORAZIO-IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK**Euskara, Gaztelania, Aleman hizkuntza, Frantsesa hizkuntza, Ingeles hizkuntza**

Baloratuko da batez ere gaiaren ulermen orokorra, gaitasun analitikoa, diziplinarteko konexio gaitasuna (historikoa, filosofikoa, zientifikoa, eta abar), erabilitako aipameneen egokitasuna, argumentuaren xehetasuna, ideien originaltasuna eta aberastasuna eta idazteko adierazpena (idazketa, azalpen-ordena, eraikuntza sintaktiko zuzena, lexikoaren aberastasuna eta zuzentasun ortografikoa).

Matematika II

- Planteamendu zuzena baloratuko da, bai orokorra, bai alderdi bakoitzarena, halakorik balego.
- Problema eta soluzioa ikusarazteko lagungarriak diren ideiak, grafikoak, aurkezpenak, eskemak eta abar modu positiboan baloratuko dira.
- Prozedurak garatzerako ordena, horien justifikazioa eta konponbideen zehaztasuna baloratuko dira.
- Problemen planteamendua eta ebazpenean originaltasuna baloratuko da.
- Hizkuntza-matematikoaren zuzentasuna kontuan hartuko da.

Latina II

- **Itzulpena:** testuaren ulermena itzulpen literal bat ez egiteko, latinezko morfosintaxiaren ezarpen egokia eta hiztegiaren erabilera zuzena baloratuko dira.
- **Sintaxia eta morfologia:** elementuen identifikazio zuzena eta funtzio sintaktikoa baloratuko dira, baita perpaus-bereizketa eta tipologia ere.
- **Lexikoa:** proposatutako latinismoen esanahiaren eta egungo erabilera ulermena baloratuko da, baita etimologiaren ezaguera ere.

**Gizarte Zientziei Aplikaturiko Matematika II**

- Planteamendu zuzena baloratuko da, bai orokorra, bai alderdi bakoitzarena, halakorik balego.
- Problema eta soluzioa ikusarazteko lagungarriak diren ideiak, grafikoak, aurkezpenak, eskemak eta abar modu positiboan baloratuko dira.
- Prozedurak garatzerako ordena, horien justifikazioa eta konponbideen zehaztasuna baloratuko dira.
- Problemen planteamendua eta ebazpenean originaltasuna baloratuko da.
- Hizkuntza-matematikoaren zuzentasuna kontuan hartuko da.

Analisi Musikala II

- Elementu formalak, erritmikoak, melodikoak, harmonikoak, dinamikoak, agogikoak, tinbrikoak eta testurari dagozkionak aztertzen ditu, entzumenaren bidez eta partituraren laguntzarekin.
- Obra baten alderdi nagusiak -formalak, harmonikoak, melodikoak, erritmikoak, tinbrikoak eta bestelakoak- deskribatzen ditu, testuinguru historiko eta estilistiko jakin batean.
- Hizkera egokia erabiliz deskribitzen ditu obra baten egitura eta zer erlazio duen obrak beste musika-parametro eta konposizio-prozedura batzuekin.
- Oinarritzko konposizio-printzipioak deskribatzen ditu: errepikapena, aldaketa, imitazioa eta garapena.
- Musika-gai bat proposatuta, originaltasunez eta zentzu kritikoz argudiatzen eta azaltzen ditu iritzi pertsonalak, hainbat garai eta estilotako ezaugarriak eta testuinguru soziokulturalak erlazionatuz eta musikaren terminologia zuzen erabiliz.

Marrazketa Artistikoa II

Honako hauek baloratuko dira:

- Terminologia espezifikokoaren erabilera, ideien zehaztapena eta sintesirako gaitasuna.
- Heldutasun artistikoa, erabilitako teknika menderatzea, zenbateko ikonizitatea lortu duen, baliabide espresiboen eta grafikoen aplikazio zuzena eta aurkeztutako proposamenak erakusten duen sormen-gaitasuna eta originaltasuna.



Arte Eszenikoak II

- Pertsonaien ekintza dramatikoa, gatazkak eta egoerak ezagutzen ditu, eta sakondu egiten du haietan.
- Badaki interpreteak zer baliabide eta zer interpretazio-teknika dituen eskura pertsonaiak sortzeko, eta aplikatu egiten ditu.
- Abiapuntuko materialarekin koherenteak diren espazio eszeniko-eszenografikoak proposatu eta garatzen ditu.
- Proposamen originalak egin eta planteatzen ditu, esanahi eszenikoa duten askotariko kodeei erreparatuta.

Zientzia Orokorrak

Honako hauek baloratuko dira:

- Zientzia jakintza-arlo globaltzat baloratzea, eta hura osatzen duten diziplinen arteko interrelazioa eta interdependentzia analizatzea.
- Zientziak gizartearen aurrerabidean duen garrantzia aitortzea, eta ikerketa zientifikoaren jardunean pertsonak duten zeregin garrantzitsua baloratzea.
- Zientzia etengabe eraikitzen den jakintza gisa baloratzea, eta egungo jakintza zientifikora nola iritsi den agerian jartzea.
- Era berean, honako hauek balioetsiko dira: aurkezpena eta irakurgarritasuna, egituraketa, antolamendua, kontzeptuen zehaztasuna, lexiko espezifikoak, aberastasuna eta koherentzia zientifikoa, argitasuna eta originaltasuna.